

noaia

Matrakak taldea: “Ez dugu erasorik erantzunik gabe utziko”

Euskara ikasi eta sustatzeko ekimen ugari daude Buruntzaldean

Ordainketak egin eta identifikaziorako txartel propioa izango du Usurbilek

**Aginagako Eskola Txikia,
konponbidean**

GOLDWELL ELUMEN

ileapaindegi

mistoa

Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar
- * Eroski City * Aginagako
- Arrate taberna * Zubietako
- Alamandegi taberna

Edo deskarga ezazu www.noaua.com-etik!

noaua

tren eta autobus

noaua ordutegia 15/16

Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 €_{tik}

12 ETXEBIZITZA INGURUNE PAREGABEAN Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

Albisteak iruditan

Ezezagunek Espainiako bandera kendu dute udaletxeko balkoitik

Aurreko astean izan zen. Udaletxeko balkoian zegoen Espainiako bandera kendu eta Mikel Laboa plazan erre zuten ondoren. Era honetan, "inposatutako jai egun arrotza" salatu nahi dute ekintza honen egileek. Idatziairekin batera, hainbat argazki batzen dituen USBa agertu da NOAUA!ko bulegoko buzoian.

Hitzez hitz, honela dio idatzi anonimoak: "Badator urriak 12, imposatutako jai egun arrotza, Espainiako estatu inperialistaren jai egun nazionala. Inposatua, beste hainbat egun eta sinbolo bezala. Larunbatean jarriarazitako bandera espainola gabe esnatu zen herria eta mila aldiz jarriarazita ere mila aldiz kenduko dugu. Ikurrina bai, Espainola ez. Inposatutako sinboloak sutara! Gora Euskal Herri euskaldun, aske eta feminista!"



Aurreko astean kendu zuten balkoitik eta Mikel Laboa plazan erre zuten ondoren.

Laburrean

Urriaren 24an, 1973koen kinto bazkaria

Urriaren 24an ospatuko dute Atxega jauregian, 14:30ean. "Nahi duenak, hamaiketako izango du Bordatxon, 12:30ak aldera". Bazkaritarako izen emateko epea: urriak 20. Deitu 616 436 961 telefono zenbakira edo idatzi usurbil73@gmail.com helbidera.

1955ean jaiotakoen kinto afaria

Aurten 60 urte bete edo betetzear dituzten herritarren afaria urriaren 17an, iluntzeko 21:00etan hasita Atxega jauregian. Urriaren 15a baino lehen eman izena, telefono zenbakiotan: 615 760 458 (Patxi) edo 675 717 020 (Mikel).

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina

Azaroaren 30era arte luzatuko da A eta B gripea saihestea helburu izango duen kanpaina. 380.000 txerto prest ditu Eusko Jaurlaritzak. Anbulatorioan informazio gehiago edo 943 36 15 43 / 943 36 20 13 telefono zenbakietara deituta bestela.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordintzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpuru.
Publizitate: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.eus:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola,
Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpuru, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Maialen Unanue

Izango al gattunk?

Pasa da. Agur. Joan zaigu Kilometroak 2015. Urtebete luzea izan da azkenekoa, mina eta ederra. Erditze luze xamarra izan dugu, lan asko suposatu duen erditzea. Nago halakoetan erraz ahazten zaizkigula une txarrak, une onak gogoratzen ditugula soilik. Eta horiek auspotu. Ni lehenengoa: urriaren 5ean neukan poza sekulakoa zen. Beraz, ez naiz ni izango euforia hori zapuztuko duena: benetan sekulakoa izan da Kilometroak 2015en harira egin den lana. Irudiak ikusi eta sekulakoa egin dugula kontura-tzea dena bat izan zen.

Baina amaitu da, joan da Kilometroak jaia. Hobeto edo okerrago, bakoitzaren sentipen pertsonala

norberak eramango du barrutik. Orain pen-tsatzeta dagokigu: zer utzi digu honek? Zer eman digu honek?

Argi dago sentipen hori oso desberdina dela antolaketa izandako parte hartze edo inplikazio mailaren arabera, edo urriaren 4an bertan bizitakoaren arabera. Pertsonalki, lagun onak eman dizkit Kilometroak jaiak (estandarte!), lankide oso finak izan ditut (aupa ekipo!), eta lehen bistaz soilik ezagututakoak gerturatu dizkit, baita sekula ikusi gabeak ere. Miresmen osoa haientzat guztientzat. Auzolan izugarria izan da aurtengoa.

Dena ez da arrosa kolorekoa, ordea. Hitzetik hortzera izan ditugu parekidetasuna, jasangarritasuna

eta inklusibotasuna aurrean. Asmo onenekin egin dugu aurrera urte guztian hiru ardatz horien erritmora dan-tzan. Eta hori guztia, euskaraz, eta hezkuntza proiektu baten alde. Jende piloak izan da horien inguruan lanean. Eta nire galdera da: hemen-dik aurrera zer? Parekide, jasangarri eta inklusibo izango al gattunk?

Sentitzen dut, baina nire zalantzak ditut. Ze, ai, biharamunean edo handik bi egunetara, herrian eraso sexistak izan zirela jakin genuen [Euskal Herrian, gainera, bi hilketa matxista ordu gutxi lehenago].

Beste adibide bat: urriaren 10ean, larunbat arratsaldea. Mikel Laboa plazan. 10 urtetara iritsiko ez ziren neska kuadrilla bat gaztelaniaz jo ta ke. Eta lurra gozokien plastiko zorroz betea.

Pausoak eman ditugu, ados. Baina mundu bat daukagu ibiltzeko oraindik. Mundu bat daukagu jorrra-tzeko, lantzeko. Eta aldaketa etorriko bada, eguneroko keinu eta jarretatik etorriko da. Norbere etxetik. Norbere praktiketatik. Begirada norbere ziborretik altxatuta. Ez dago helburu potolirik jarri beharrik: baina neurririk hartu ezean, ez gattunk ez parekide, ez jasangarri ez inklusibo izango.

Urte osoan lanean aritutako lankide batek urriaren 4a baino lehen zioena ekarri nahiko nuke gogora: "Eta, orain dena bere horretan utziko dugu? Zerbait egin beharko dugu, ezta?". Lana soberan dago.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue

Ika-mika

Usurbilgo "udal gobernu demokratikoa"

Udal hauteskundeak izan ondoren, maiatzaren 28an, korporazio berria eratu zen, ondoren BILDuko alkate eta bi zinegotziren soldatak ezarri zituen udal batzarrak. Iraileko udal batzarrak onartu ditu zinegotzien dietak eta alderdien ekarpenak.

Dakizuen bezala, Usurbilen 13 zinegotzi daude: BILDU (8), EAJ-PNV (4) eta PSOE (1).

Usurbilen, politika arautegiak markatzen duenaren arabera, gehenez 3 liberazio onartu daitezke. EAJ-PNVren proposamena liberazio

bat oposizioan gauden alderdien artean zatitzea zen. Gure ustez zentzuzko proposamena dirudien arren, EH-BILDUK atzera bota du udal honetan, beraz 3 liberazioak bere taldekoak dira: Alkatea eta bi zinegotzi.

Ezker abertzaleak erabaki hau arrazoitzeko erabili dituen argudioak, hauek izan dira:

- "Liberazioa udal-gobernuko ardurarik gabe ez dugu ikusten".

- "Usurbilen oposizioari ez zaio liberaziorik eman azken urteetan".

Gure ustez oposizioak lan serioa

egiten du eta denbora asko ematen du lan txukun bat egiteak. Bestetik, ezker abertzaleari gogorarazi, lehen alkateek ere ez zutela liberaziorik izaten.

Argudio honen aurrean, esan, Usurbilgo politika eta herria ez dira hobetuko eta aurreratuko beti, betikoa eginez.

	2011	2015
	Aurreko legealdian	Oraingo legealdian
Alkate soldata	34.237	45.000
Zinegotzi 1 soldata	24.892	34.237
Zinegotzi 2 soldata	31.449	34.237

Batzordeko dietak 25etik 50 euro-tara igo dituzte, alderdien ekarpena 250etik 400era eta zinegotziko 100etik 110era.

Izan ere, EUDELe (Euskal udalerrien elkarte), alkate eta zinegotziei dagozkien soldatak eta dietak, biztanleriaren arabera ezartzen ditu. EH-BILDUK, ez du hitzarmen hau onartzen besteei eragiten dienean, aldiz beraiei ondo datorkienean bai. Hau da, komeni zaienean, komeni zaiena egiten dute.

EAJ-PNVko udal taldea

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaia.eus

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL

943 361182

EGUNEKO MENUA KARTA

PLATER KONBINATUAK OGITARTEKOAK TOSTAK MENU BEREZIAK

ARTZABAL

Baserria - Jatetxea
Puntapax 8, Usurbil
943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.com

“Ez dugu erasorik erantzunik gabe utziko”

Ez dira ekintza isolatuak, etenik ez duen indarkeria baizik. Azkenak, Iparraldean eta Erandion eraildako emakume bana, emakumeen aurkako eraso sexistak Usurbilen... Zorritzarrez, egunerokoa eta etenik gabekoak dira emakumeen aurkako erasoak. Eraso guztion salaketa plazara eraman zuen Matrakak Usurbilgo Talde Feministak, urriaren 7an Mikel Laboa plazan deitu zuen elkarretaratzea-ren bidez.

Mobilizazio amaieran irakurri zuten adierazpenak argi zioen moduan, “Ez dugu erasorik erantzunik gabe utziko, ezta erasoturik gure babesik gabe ere”. Eraso guztiak gai-



Urriaren 7an elkarretaratzea egin zen Mikel Laboa plazan, Matrakak deituta.

tzesteaz gain, gizarte justu, aske eta parekide bat izateko lanean segitzeko gonbita luzatu zuten, erasook salatzeak gaur arte egin den mobilizazio

jendetsuenetarikoa.

Elkarretaratze amaieran adierazpen bat irakurri zuten. Lerro hauen azpian duzue idatzia.

Emakumeen Mundu Martxarekin bat egin du Udalak

Europa osoa zeharkatzen ari den Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrian izan da astebetez. Usurbilgo Udalak Emakumeen Mundu Martxari babesa adierazi eta “bere esku dauden baliabideekin berdintasunaren alde lan egiteko eta neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du”, iraileko osoko bilkuran EHBilduk aurkezturiko adierazpen instituzionalak jasotzen duenez. Indarkeria matxistaren aurkako formazioa, sentsibilizazioa eta ekintza protokoloak abiatzeko konpromisoa, zaintzaileen lana erraztu eta bizimodua hobetzeko, aniztasun sexualaren alde lan egiteko eta emakumeen jabeakuntza sustatzeko konpromisoa. Adierazpena aho batez onartu zuen udalbatzak. Informazio gehiago: emakumeenmundumartxa.eus

Ika-Mika

Adierazpena

Usurbilen bertan jazotako eraso sexistak, bai, pluralean, Erandioko Almudenaren erail-keta matxista eta Iparraldeko azken erailketa salatzeak elkartu gara gaur. Zorritzarrez, egunerokotasunean behin eta berriro jazotzen dira halako egoerok eta ez dira gizarteko ero batzuek eginiko ekintza isolatuak, komunikabideek hala saldu nahi badizkigute ere. Argi utzi nahi dugu ez direla bat batean, eze-rezetik gertatutakoak, emakumeok pairatzen ditugun indarkeria matxista kasu guztiek erantzuleak dituzte, sistema patriarkal kapitalista eta berau elikatzen dutenak. Aste honetako eraso sexistak eta erailketak izebergaren punta besterik ez dira. Indarkeria matxistaren aurpegi ageri eta nabarmenena. Baina ez bakararra. Nazkatuta gaude eta oso haserre. Hori dela eta, oraingoan ere gure gaitzespen osoa eta salaketa irmoa plazaratu nahi ditugu ezer baino lehen.

Badakigu emakumeen aurkako

indarkeriak ez duela etenik eta munduko edozein bazterretan ematen direla eraso eta zapalkuntza hauek. Horren aurrean ezin dugu gure amorrua, nekea eta haserrea besterik adierazi. Ez dugu erasorik erantzunik gabe utziko, ezta erasoturik gure babesik gabe ere. Honelako gertaerek erakusten dute beharrezkoa dela gure borroka. Gizarte aske, parekide eta justuago baten alde lanean jarraitu behar dugu. Bakoitzak bere eremuan eta eremutik, saretuz eta saretzen, guztiok baikara beharrezko zapalketa egoerekin amaitzeko. Amaitu aurretik esan, uda gogorra izan dela emakumeen aurkako erasoek ez baitute etenik izan, eta ezin ditugu ahaztu Euskal Herrian 6 emakume erail dituztela dagoeneko. Beraz, ozen diogu: nazkatuta gaude eta ez gara isilduko, emakumeok aske bizitzeko eskubidea dugulako.

Gora borroka feminista, gora emakumeen bizitza!

Matrakak Talde Feminista

Txaramuntoko sutea ikertzen ari dira



Astearte goizean piztu zen sutea. Lau auto kiskalita geratu ziren.

Susto galanta astearte goizaldean Txaramunton. 4:30ak aldera sua piztu zen kalea amaitzen den zonaldean aparkatua zegoen furgoneta batean eta ondoan aparkatuak zituen hiru auto guztiz kiskali ziren. Bos-

garren ibilgailu batek kalte material arinak izan zituen. Kalte pertsonalik ez zen izan zorionez. Suhiltzaileak etorri eta berehala amatatu zuten sua. Sua zerk eragin zuen ikertzen dabil orain Ertzaintza.

Aginagako Eskola Txikiaren egoera, konponbidean

Hitz egitea beti argigarri eta lagungarri suertatzen dela, horren erakusgarri dugu urriaren 6an Aginagako Eskola Txikia kokatzen den eraikinean egin zen bilera. Eskolako irakasle eta gurasoak Usurbilgo Udaleko gobernu taldeko kideekin batu zituen hitzorduan, egunotan bizitakoa mahai gainean jarri, gertaturikoa norberak nola bizi izan zuen azaldu, iritziak elkartrukatu eta denak ere, arazoari ahalik eta erantzun egokiena emateko ahaleginean aritu ziren.

Gogoan izan, urriaren 1etik 2rako gauean izandako euriteek Aginagako Eskola Txikia kalte-zutela; batez ere, ludoteka kokatzen den goiko solairua, baina baita ludoteka azpiko eskolako 3 gelak ere. Kontua da, Elizaren jabetzakoa den eraikineko teilatua konpondu beharra zegoela, Udalaren esanetan “egoera kezkarria baitzen”.



Urriaren 6an bilera batean elkartu ziren udal ordezkariak, gurasoak eta eskolako arduradunak.

URRIAREN 6KO BILERA

“Eskolako irakasle eta gurasoak Usurbilgo Udaleko gobernu taldeko kideekin batu ziren, eta arazoari ahalik eta erantzun egokiena emateko ahaleginean aritu ziren”

Konponketa lanetan ari diren honetan, urriaren 1ean, gauez

teilatua altxata dagoen eremutik sartu zen euri ura. Ulergarria den moduan, biharamunean, urduritasuna eta tentsioa nagusitu ziren guraso, hezitzaile eta ikasleen artean; itoginak, sabai faltuko zenbait zati erorita, eskolako materiala kaltetuta, une hartan ezin klaserik eman...

Gaizki-ulertuak

Ezbeharrak gertatu zenetik eskolaren eta Udalaren artean izan diren hartuemanek, eta duela

astebeteko bilera bera ere lagungarria izan zen, urriaren 2an berehala argitu zen gaizki ulertu batek eragin zuen urduritasuna eta tentsioa baretzen laguntzeko. Eskola Txikiak urriaren 2an, goizeko lehen orduan zuen egoera ikusita, eguneroko jardunari ezin eutsirik zebiltzan. Udal langile bat bertaratu zen eskolara.

Une horretan, Udalak jaso zituen lehen datuen arabera ordea, egoera ez zen larritzeko modukoa. Baina handik gutxira udaletxera gerturatutako eskolako ordezkari talde batek, egoera zehatzaren berri eman zien udal ordezkariari, egoeraren larritasuna azpimarratuz. Berehala, Usurbilgo Udaleko gobernu taldeko bi kide, udal arkitektoa eta aparejadorea gerturatu ziren Aginagako Eskola Txikira, kalteak ikusi, baloratu, eskola txikiko komunitateko kideekin bildu eta hortik aurrera egin beharrekoak hitz egitera.

Eraikinaren egitura ez dago kaltetuta

Udaletik aipatu bileran adierazi zuten, ludoteka azpiko ikasgelak erabiltzeko arazorik ez da egongo. Goiko solairuak baino kalte gutxiago izan dituzte, egin beharreko konponketa lanak ere sinpleagoak dira; sabaian igeltoa jarri eta margotzea.

Ludoteka kokatua dagoen solairuak aldiz, konponketa lan handiagoa beharko du, nahiz lan konplexuak izango ez diren. Batetik argi instalakuntza berrikusi beharko da eta bestetik sabaia konpondu. Konponketa lanek iraun artean, gune hau ez erabiltzea,



Egitura kalteturik ez dagoen arren, obra zuzendaritzari txosten tekniko bat eskatu zaio.

itxita egotea hobetsi dute, egokiena delakoan, ez arri-

ku egoera dagoelako. Udaltik urriaren 6ko bileran argitu

nahi izan zuten zuzen, eraikineko egitura bera ez dago kaltetuta. Baina badaezpada, beste edozeren gainetik, segurtasuna lehenetsi eta bermatu nahi dute.

Dena aurreikusi bezala bada, hurrengo hamabostaldian amaitu daitezke konponketa lanak. Horretarako, obra zuzendaritza inplikatzeko, eta lanak ahal bezain azkar amaitzeko nahia eta beharra adierazi zuen eskola txikiko komunitateak, Udalak bezala. Eta behingoz, konponketa lanak bukatu eta hain beharrezkoa duen erabateko normaltasunera itzultzekoa.

Ikasgelak, erabilgarri



Ludoteka azpiko gelak erabilgarri daude. Eta kaltetuak izan ez diren beste gela batzuk ere baliatu ditzakete.

Obra hauen gertuko jarraipena egitea eskatu zieten bildutako Eskola Txikiko kideek udal ordezkari. Hala egiteko konpromisoa hartu zuen gobernu taldeak, nahiz jakinarazi nahi izan zuten, obrak kudeatzea lokalaren jabeari dagokiola, Elizari alegia eta ez dela honenbestez Udalaren erantzukizuna. Aginagako Eskola Txikiko egoitza ez baita udal jabeagokoa, Elizarena baizik. Udalak alokatuak ditu lokalok.

Halere, joan den asteko bileran aipatu zuten, egin beharreko konponketa lanen inguruko planari buruzko txostena eskatua dio Udalak obra zuzendaritzari. Txostena jasotzeke zuten bilera egunean. Txosten hau lagungarria litzateke, batetik ezbeharraren eragin zehatzaren, egin

BERTAN JARRAITUKO DUTE

“Ludoteka azpiko gelak erabiltzeko moduan dituzte. Konponketa lanak amaitu artean bestalde, kaltetuak izan ez diren eraikineko beste lokalak baliatzeko aukera ere izango dute”

beharreko konponketen eta bitarte horretan, erabilgarria izango den espazioaren berri izateko. Txosten horrek dioenaren zain, eraikin berean segiko dute eskola txikiko ikasle eta irakasleek. Ludoteka azpiko gelak erabiltzeko moduan dituzte. Konponketa lanak amaitu artean bestalde, kaltetuak izan ez diren eraikineko beste lokalak baliatzeko auke-

ra ere izango dute. Jubilatuek erabili ohi duten lokala uzteko prest agertu dira. Bileran bertan ere aipatu nahi izan zen, behar izanez gero Udarregi Ikastolatik gelak eskaini zitzaizkiela baita.

Toki berean segitzea

Udalaren helburua, eskola txikiko kideekin urduritasun eta kezka partekatzeaz gain, arazoari ahalik eta erantzun egokiena ematea da. Hezitzaile zein gurasoen ekarpen edota proposamenak jasotzeko prest agertu ziren. Eta etorkizunera begira argi utzi zuten; Eskola Txikia egungo kokagune berean mantentzen segitzeko konpromisoa dutela alegia. Erabateko babesa adierazi zion Udalak Aginagako Eskola Txikiari.

Azken hilabeteetako gertaeren kronologia

Aginagako Eskola Txikia kokatzen den eraikineko teilatuaren egoera kezkarria zela eta, konpondu beharrean zen bai hala bai. Lanak hasteko prozedura igarota, udako oporraldia baliatu nahi zen konponketa lanetarako, baina atsedean garai hau tarteko, aurreikusitako baino gehiago luzatu dira lanak. Urriaren 6ko bileran aipatu zutena aintzakotzat hartuta, hona hemen azken hilabeteetako gertaeren kronologia:

■ 2015/6/19: eraikinaren jabeak, Elizak, obra eskaera aurkeztu zuen.

■ 2015/7/06: obra proiektua aurkeztu zuen Elizak.

■ 2015/7/20: urgentziazko Tokiko Gobernu Batzarra deitu zuen Udalak, ahal bezain azkar obrari baldintzapeko oniritzia emateko. Finkatu ziren baldintzak; Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak betetzea. 2015-16 ikasturtea hasteko, lanak amaituak egotea.

■ 2015/8: lanak etenda.

■ 2015/8/24: Usurbilgo Udalaren lanen inguruko jakinarazpena helarazten dio Elizari.

■ 2015/9: ikasturte hasiera, eta obrak bukatu gabe.

■ 2015/10/2: euriteek ludoteka eta Eskola Txikia kalte-tu zuten.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROLO MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



Plan Orokorra idazteko irizpide eta helburuak, finkatuta



Gobernu Taldeak zazpi iradokizun eraman zituen plenora. PSE-EE abstenitu egin zen eta EAJk aurka bozkatu zuen.

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra fase berri batean sartzeri doa. Aurrerakinari iradokizunak aurkezteko epea igarota, iradokizun hauei erantzuten zien udalbatzak, irailaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Guztira zazpi iradokizun

ziren gobernu taldeak plenora eramandakoak. Bozketan, kasu guztietan PSE-EE abstenitu zen eta EAJ-PNV-k hasieratik iragarri zuen aurka bozkatzuko zutela, gai honi loturiko irizpideekin bat ez zetozelako.

Iradokizunak erantzuteaz gain, urrats berri bat eman

zuen udalbatzak. Hiria Antolatzeko Plan Orokorra idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak onartu zituen EH-Bilduren aldeko bozkekin. Iradokizunekin gertatu bezala, PSE-EE abstenitu zen eta EAJ-PNV-ko lau ordezkariak aurka bozkatu zuten.

Urriaren 20an, Sexu Aholkularitza Gunea zabalik izango da berriro

Irailaren 15ean martxan jarri zuten udako oporren ostean, bi asteartean behin eskainiko den udal zerbitzua. Urriaren 20an zabalduko dute berriro. Ikasturte berria abiatu den honetan, iazkoaren balorazio bat helarazi digu gunea kudeatzen duen Elena Jimenez sexologoak. 2014-15 ikasturtean zehar antolatu dituzten ekimenen artean, ekainaren 28aren harira Sutegin irekitako transexualitatearen inguruko erakusketa dago, ikasle, haur nahiz gazteen gurasoei zuzenduriko sexu heziketari loturiko formazio saioak edo solasaldiak Zubietan, Gaztelekuan, Oinarritzko Lanbide Hezike-

tan... Informazio, formazio eta aholkularitza sexologikoa eskaintzen duen guneari loturiko 2014-15 ikasturteko parte hartze datuak dituzue segidan. Alegia, eskaintzen dituzten zerbitzuak zenbat lagunek baliatu dituzten:

-Aholkularitza: 31 lagun.

-Formazioa: 111 lagun.

-Aurrez aurreko sentsibilizazio lana: 23 emakume.

-Erakusketa edo sare sozial bidez: jende andana.

-Gehienak: 165etik 126 emakumeak eta 39 gizonezko.

Bi asteartean behin zabalik

-Egoitza: Nagusia 43 behean (Gizarte Zerbitzuetan).

-Irekita hilabeteko lehen, hirugarren eta bosgarren asteartean, 17:00-19:00 artean.

-Aurretik hitzordua eskatu: Facebook (Usurbilgo Sexu Aholkularitza gunea Sexune), 697919516 edo sexuaholku@usurbil.eus

-Kudeatzailea: Elena Jimenez Jimenez sexologoa (Sexune Elkarteak).

-Doako zerbitzu eskaintza herritar ororentzat: "gaian sakontzeko liburu gomendagarriak, gogoetarako baliabideak, kezkak eta zalantzak argitzeko... orientazio sexuala, sexu-nortasuna, desiraren inguruko zalantzak, harremanetan zailtasunak..."



Batzokiko pintadak salatzeako eskaera

Irailaren 23an hainbat hormetan azken atxiloketak salatzeako pintadak egin zituzten. Tartean baita Usurbilgo EAJ-PNVren egoitza atarian ere. Ekintza onartezintzat jo zuten jeltzaleek, irailaren 29an egin zen osoko ohiko bilkuran. Pleno amaieran, galdera eta eskaeren atalean, gainerako udal taldeei gai honi loturiko oharra banatu eta irakurri zuten. Hiru puntuko testuan, aipatu ekintza salatzea, bizikidetzaren errespetuaren alde agertzea, eta pintadak ahal bezain laster garbitzea eskatzen zuten. Bizikidetzaren bul-tzatzearekin bat egiten zutela, eskaerak jasota geratzen zirela eta gaiaz lasaia hitz egiteko asmoa agertu zuen gobernu taldeak, Xabier Arregi alkateak.

Hilerri berriko 9 nitxo esleitzeko deialdia

Emakida administratiboaren bidez gauzatuko den esleipenaren araudia aho batez onartu zuen udalbatzak, irailaren 29ko osoko ohiko bilkuran, "klausula juridiko, ekonomiko eta administratibo bereziak" hain zuten. Deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik zenbatzen hasita, eskaerak aurkezteko 30 eguneko tartea egongo da.

Ahalduntze tailerra

"Maitasun erromantikoaren inguruko hausnarketatik abiatuz, harreman parekideak eta osasungarriak eraikitzeko giltzarriak landuko dira ikastaroan".

■ Egunak: urriak 19, 26, azaroak 2, 9, 23, 30 eta abenduak 14 (astelehenak).

■ Orduetgia: 17:00-19:00.

■ Lekua: Potxoenean.

■ Irakaslea: Clara Wolfram.

■ Hizkuntza: euskaraz.

#Kilometroak2015-en oihartzuna prentsan

Berezia izan da aurtengo Kilometroak jaia. Eguna dezentzat gozagarria egiteko, eta ahalik eta aztarna txikiena uzteko, hilabete luzez hiru ideien inguruan lan egin dute antolatzaileek, Usurbilgo Udalak eta hainbat gizarte taldek: iraunkortasuna, inklusibotasuna eta parekidetasuna.

Iturri bereziak deigarriak gertatu ziren igandean ikastolen aldeko Kilometroak jaian. Ur botilek sortzen duten kutsadura saihesteko, iturriko ura eskaini zuten antolatzaileek, lehen aldiz. Izan ere, iraunkortasunaren aldeko apustua egin dute Usurbilgo (Gipuzkoa) Udarregi ikastolak eta udalak. Baina landu dituzten hiru balioetatik bat baino ez da izan iraunkorta-



Berriako edizio digitala, #Kilometroak2015 egunaren biharamunean.

suna. Horrez gain, inklusibotasuna eta parekidetasuna jorratu dituzte. Azken alorrean, etorkizuneko ikastolen aldeko jaietan erabili ahaliko den protokolo bat sortu dute, eraso sexistei aurre egiteko.

Igandean, lan horren azken

emaitzak ikusi ziren Usurbilen, baina hilabete luzeko ariketa izan da, antolatzaile, agintari eta alor bakoitzean lan egiten duten gizarte taldeen artekoa.

Edu Lartzanguren (Berria 2015.X.06)



Zakilixut (Olariaga-Berria, 2015.X.04)

Lotzen 'gattun' harira

Kilometroak 2015eko Gattunk leinari eusten dion abestiari jarraituz, Euskal Herriak eta euskaldunok, lotzen gaituen harira heldu beharko diogu: euskarari, alegia. Eta horren defentsan, elkarrekin eraiki "nahi dugun hezkuntza sistema eta modelo propioari". Hortan ados daude, behintzat, atzo Usurbilen bildu ziren milaka pertsona eta instituzioetako hainbat ordezkari eta agintari. Horrela azaldu zuten Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundi, Usurbilgo Udal, eta Gipuzkoako ikastolen elkarreko ordezkariak euren hitzaldietan.

Zubietako erraustegiaren inguruko gatazkak ezusteko protagonismoa izan zuen arren -Usurbilgo alkateak azpiegitura honen kontrako mezua erekin ireki zuen festa-, euskararen biziraupen eta sendotzerako dei bateratua egin zuten EAJ eta EH Bilduko

ordezkariek. Usurbil, eta Kilometroakeko jaia, beste behin... jendez gainezka. Ez da berria. Euriak ere ez zuen horrelakorik galdu nahi izan.

Euskal ikastolen urteroko festak jaia baino gehiago esan nahi du eta horixe izan zuen. Espainiako Lomce legearen inposaketei aurre egiteko, euskaldunon artean adostasunerako zubiak eraikitze borondatea erakutsi zuten euskal agintariak. Horrela adierazi zuen Cristina Uriarte, Hezkuntza sailburua. Baina erraustegiaren gatazkak ere ezusteko protagonismoa izan zuen eta tentsio puntua sortu zuen.

Markel Olano Ahaldu Nagusia metro t'erdia zuela, festaren irekierako saioan bertan, Usurbilgo alkateak, EH Bilduko Xabier Arregik, ez zuen aukera pasatzen utzi: "Herri honek badu kezka haundi bat: erraustegia. Erraustegia da buruhausterik haundiena herriarentzat. Ez dator bat gure baloreekin.

Letabiden, hemendik kilometro bat baino gutxiagora dago", esan zuen; eta Ahaldu Nagusiari "arduraz" jokatzeko eskatu zion.

Markel Olanok ez zion alkatearen interpellazioari izkin egin. Hitz hartu zuenean, aitortu zuen "eztabaida eta diskrepantziak herri guztietan" ematen direla. Eta "etorkizunean ere izango ditugu horrelako diskrepantziak", esan zuen. Baina hori onartuta, euskaldun "guztion erroka" euskararen "biziraupena" dela azaldu zuen eta horixe da bere ustetan, "gu guztiok batzen gaituena". Olanok joera ideologiko ezberdinetako euskaldunak "perspektiba ez galtzera" deitu zituen eta liskarren gainetik "gure hizkuntza eta hezkuntza sistema propioa indartzea tokatzen zaigula", adierazi zuen.

Mikel Mujika (Noticias de Gipuzkoa, 2015.X.05)

Gattunk

Zaila da betiko bidetik aterata iraultza freskagarria burutzea. Bai behintzat egunero horretan saiatzen garenontzat. Horixe egin du ba Usurbilgo herriak Kilometroak ekitaldiarekin. Gaur helmuga eta jomuga aipatuko dira. Lortutakoaren balantzea. Nik bidea goraiatu nahiko nuke. Atzokoa iritsi bitartean igarotakoak utzitako ubera, jendetzak herriko zelaian marraztutakoa ez bezala, ezabatzen ez den horietakoa baita. Iazko urriaren 17an lekukoa herri-tarron eskuetara iritsi zenez geroztik hariari tiraka ibili gattunk. Ikastola eta euskara aitzaki hartuta herri oso bat lotzen eta josten. Martxoaren 18an piztu zen erabateko magia. Herriko musikarien ahalari tiraka sortutako abestia aurkeztu zen. "Gattunk" fenomenoaren edertasun estetikoaren barruan aurki daitekeen sakontasunaren isla nagusia. Bideoklipa heldu zen gero, korapilotsua bezain distiratsua. Buruhandia bilakatu zen haurren jolas ofizial eta koreografia ere ikasi genuen nahi gabe. Eta duela hilabete, kalean egindako kantaldia. Inor falta al zen han? Ume, nerabe, guraso eta nagusi, bakoitza bere koloreekin, abesten eta dantzari aritu ginen. Hunkigarria. Mugarri bakoitzak hazia bota du herrian. Irriak kutsatu ditu. Handi eta txiki, hango eta hemengoak elkartu. "Gattunk" esperientzia lotzen gattun haria bilakatu da. Hara hor batzuk lerro buru potolo bezain hutsaletara eramaten duten "bizikidetzak" kontzeptua praktika dotoreraren amandak. Gozatuz eta goza araziz, askoz errazagoa izan da parekidetasuna, jasangarritasuna eta inklusibitatea guztiaren kontzientzietan txertatzea. Bideak ahalbidetzen du helburua. Horregatik, harik eta behar den artean segi, Usurbil, bide hori eraikitzen.

Gaizka Lasa (DV, 2015.X.05)

Erabilera tresnez hornitua dago

Mintzalagun, Mintzanet, Zilegi Eskolak, Banaiz Bagara Elkartek aisialdian eta lan munduan sustaturiko prestakuntza saioak... Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo herritarrok ez dugu aitzakiarik euskara ahotan ez hartzeko. Baliabide faltagatik ez da izango behintzat. Tresnak baditugu, denak ere euskararen erabilera sustatzeko ezinbestekoak, Buruntzaldea euskaldundu nahi badugu.

MINTZALAGUN

Euskararen erabilera sustatzeko tresna ezin baliagarriagoa. As- tean behin kafe bat hartu, pa- seatu, zaletasunen bat parteka- tzeko gogoia izan edota antzeko planen bat egiteko agendan tar- tetxo bat egitea aski da. Euska- raz aritzea da bete beharreko baldintza bakarra.

Mintzalagunen parte har- tzeko euskaltegi edo euskara taldeetara gerturatu eta izena eman behar da lehenik. Bil- guneotan aipatu egitasmoan apuntatzen diren lagunen ar- tean osatzen dira mintzaprak- tika saioetarako taldeak gero. Hortik aurrera, taldeak guz- tiz autonomoak dira. Hau da, mintzalagun talde bakoitzak erabakitzen du asteko ze egu- netan, noiz, non eta zertarako bildu. Izan daiteke mahai ba- ten bueltan tertulian aritzeko, ibilian asteko bizipenak par- tekatzeko, ekitaldiren batera gerturatzeko... Edozer izanda ere mintzagaia, komunikatze- ko hizkuntzak euskara behar du izan.

Talde txikiak izaten dira, guztira 3-6 bidelari eta bidela- gunez osaturikoak. Bai, bide- lari eta bidelagunez ari gara. Termino hauek argitze aldera; bidelariak, euskara ikasi edo hobetzen ari direnak izenda- tzeko baliatzen da egun. Eta bidelagunak ahotan hartze- rakoan, “euskaldun zaharrez” hitz egiten ari gara. Terminoak argituta, taldekide kopuru ze- hatzak izaten ditu mintzalagu- nek; bidelagun bat edo bi eta 2-4 bidelari osatu daitezke.

Kontzeptu eta zenbakiotatik kanpo, anitzak dira mintza- lagun taldeak. Euskaltegi- ko ikasleak izan daitezke, edo ez. Behar desberdinak dituz- ten bidelariekin parte hartzen dute egitasmo honetan. Izan



Mintzalagun taldekoak, Igartubeiti baserrira eginiko bisitan (argazkia, artxibokoa).

daiteke “euskara ikaslea, in- gurune euskaldunak ez duena, edo ingurune euskalduna izan bai, baina euskaraz hitz egiten hastea gogorra egiten zaiona”, Lasarte-Oriako Muntteri eta Usurbilgo Etumeta AEK eus- kaltegietako arduradun Olatz Urdanpilletak azaldu digunez.

Konfidantza gunea

Guztientzat Mintzalagun euska- raz lasaitasunez aritzeko gunea da. “Lagundu egiten du. Ziur- tasuna ematen du. Euskaraz ez dakienari, lehen pausoa egiten errazten dio”, dio Urdanpille- tak. Mintzatzeko gutxieneko maila bat eskatzen zaio bidela- rari; B1 maila.

Gainerakoan, halako espe- rientzietan parte hartzen du- ten “denek helburu bera dute, euskara. Zer kontatzen den gutxienekoa da”. Nahiz euska- ra ahotan hartuz partekatzen duten horrek taldea lotzen duen. Hain zuzen, euskara erabiltzeko bildu ohi diren tal- deok jorratzen duten ibilbidea ikustekoa izaten da maiz. Kasu batean baino gehiagotan, ha- sieran euskarak lotzen ditu soi- lik. Euskaraz aritzeko gogoak, beharrak. Talde kideen arteko harremanak estutzen joan aha- la, Urdanpilletaren esanetan, “talde dezente lagun koadrilan

bihurtzen dira. Batzuk urte asko daramatzate”. Badira eus- kaltegia utzi arren, gerora ere Mintzalagunen jarraitzen du- tenak.

Bidelagunek, “emandakoa baino gehiago jasotzen dute”

Euskaltegitik begi onez ikusten dute mintzalagun egitasmoa. AEK-ko kidearen esanetan, “izugarri eskertzen da. Hel- burua ondo hitz egitea izan dai- teke, baina benetan hitz egitea da. Mintzalagunekin helburu hori betetzen da eta oso lagun- garria da. Ikasleei beti esaten diegu, klasean egiten dena oso garrantzitsua dela, baina hortik kanpo egiten dena are garran- tziatsuagoa”.

Klasean euskalduntzeko eginiko lanketan sakontzeko, saioetan prestaturikoa hortik kanpo erabiltzeko, “euskaldun izatearen helbururantz oso la- gungarria” da benetan. Elkar elikatze bat ematen da mintza- lagun artean. Euskara ikas- ten ari direnek, klasekoa min- tzalagun egitasmoan praktikan jartzen dute, eta mintzaprak- tika saio horretan erabilitakoak euskaltegian aurrerapausoak egiteko balio die ikasleei.

Hori bidelariei dagokienean. Aipamen berezia merezi dute

baita noski, bolondres lane- tan jarduten duten bidelagun edo “euskaldun zaharrek”. Hasten direnek segitzen dute, esperientzia positiboa beraz. “Euskalduna izanda, hasiera batean egitasmo honetatik jaso dezakeenak ez dirudi erakarga- rria. Baina parte hartzen dute- nek emandakoa baino gehiago jasotzen dutela diote. Esker ona jasotzen dute. Irakasle gisa dakit zer nolako poza ematen duen, gutxi edo ia batere hitz egiten ez zuen batek pixka- naka euskaraz geroz eta hobe- to eta gehiago hitz egiten duela ikustek”, dio Urdanpilletak. Argitze aldera; bidelagunak bolondresak izaten dira gehie- netan, ez irakasleak. Bidela- riari mintzapraktika saioetan sortzen zaizkion zalantzak euskaltegian argitzen zaizkio gero.

Internetez, Mintzanet

Gugandik gertu edo urrun, edozein lekutan euskaraz ari- tu nahi dutenen artean elkar komunikatzeko beste tresna bat; Mintzanet proiektua. “Munduko edozer txokotan egonda ere euskaraz hitz egi- teko aukera eskaintzen duen proposamen berritzailea. In- ternet bidez, noiznahi, euska- raz mintzatzen diren lagunak topatuko dituzu. Oso erraza da! Zeuk aukeratuko duzu ordua edo zer gairi buruz hitz egin”. B1 maila beharko du bidelari edo “euskaldun berriak”. Informazio gehiago: mintzanet.net.



euskara Buruntzaldean

BANAIZ BAGARA ELKARTEA

Jatorri ezberdinetako herritarrekin lan egiten dute. Euskaraz bizi ahal izateko tresnak eskaini nahi dizkiete, sarri gure artera etorri berriak izan eta ez hizkuntza, ezta euskal giroa ere ezagutzen ez duten lagunei. Aisialdian hasi ziren eragiten duela sei urte, baina gerora eta dagoen eskaerari erantzun nahian, lan mundua eta langileak euskalduntzeko ahaleginean dabil Banaiz Bagara Elkartea. Elkarteko kide, Petra Elserrek dakartza zehaztasun gehiago lerrootan.

Behar batetik sortu zenuten elkartea 2009an?

Petra Elser: Batez ere ikusi genuelako, nik neuk baita, ez dela hain erraza kanpotik etortzen garen pertsonak euskara ikasi edo zirkulu euskaldunetan sartzea. Printzipioz bide hori errazteko sortu zen. Elkarbizitza eta hizkuntza txertatzen dugu, zeren bereziki zaila da zirkulu euskaldunetan sartzea, bai hizkuntzagatik, aisialdiko ohiturengatik... Horregatik osatzen hasi ginen taldeak non jendea modu informal batean elkartzen zen, oinarritzko euskara ikasteko, gero euskaldunekin elkartzeko.

Zuen lan esparrua zabala da. Lan munduan, lagun artean, kalean eragin nahi duzue?

Azken 5-6 urteetan batez ere aisialdian lan egin dugu. Azken bi urteotan ikusi dugu, ezinbestekoa zela lan munduan zerbait egitea.

Enplegatzaile eta enplegatuen arteko zubi lana egiten duzue Euskaraplus proiektuarekin, ezta?

Printzipioz bi herritan, Hernanin eta Andoainen jarri dugu martxan Euskaraplus proiektua. Jendearen erantzuna oso ona izan da. Ikastaro oso prak-



Hernanin eta Andoainen Euskaraplus proiektua jarri dute martxan.

PETRA ELSEER

“Azken bi urteotan ikusi dugu, ezinbestekoa zela lan munduan zerbait egitea. Jendearentzat, baina batez ere hona lan egitera datozenentzat lanak baitu lehentasuna”

tikoak ematen ditugu, laneko komunikazioa eta hizkuntza lantzeko. Denak dira laneko simulazioak; benetako tresnekin, benetako lan egoerak antzetzen ditugu. Batzuentzat errazagoa da hizkuntza modu honetan ikastea beste modu batean baino. Gero aztertzen dugu zein enpresak edo zein enplegatzaileek eskatzen dituzten langile euskaldunak,

euskaraz zerbait dakitenak, edo euskara ikasteko prest daudenak. Hizkuntzarekin jarriera positiboak dutenak alegia. Saiatzen gara zubi lana egiten, kontratatzailearen eta lana bilatzen ari direnen artean. Gure ikastaroetan parte hartu duten ikasleak gero lanpoltsa batean sartzen dira. Beraiekin harremanetan jartzen gara eta ateratzen diren lan eskaintzak bidaltzen dizkiegu. Jarraipen bat ere egiten diegu lana bilatzeko prozesuan, eta baita ere, lana aurkituz gero lanean atera litekeen komunikazio egoerak lantzeko eta ikasten jarraitzeko. Enplegatzaileen aldetik ere izan ditugu dei batzuk. Tabernariak deitu digute. Lana bilatu duten bi pertsona ditugu; batek zaintza arloan familia batean lan egi-

ten du. Eta beste batek taberna batean. Dei gehiago izan ditugu eta kurrikulum gehiago bidali ditugu. Hemendik aurrera erantzun gehiago izatea espero dugu. Enpresek gu ezagutu eta poliki poliki erreferente batean bihurtzea, hori da asmoa.

Herriz herri zer egitasmo bideratu dituzue?

Urritik aurrera berriz martxan izango da Urnietan, euskara ikasteko talde ireki bat. Parte hartu ahal da bertan. Andoainen bi ikastaro egin ditugu; ostalaritza eta pertsonen zaintzaren ingurukoak. Hernanin 3 egin ditugu; pertsonen zaintza, ostalaritza eta metalgintza. Aurten Lasarten ez dugu talderik izan. Astigarragan eta Usurbilen orain arte inoiz ez dugu ikastarorik egin. Gure asmoa, datorren urteari begira, Euskaraplus proiektua Buruntzaldea osoan eskaintzen saiatzea da.

euskaraplus.eus

Twitter: @banaiga

Facebook: Banaiz Bagara

Informazio gehiagorako euskara zerbitzuetara jo

Andoaingo Euskara Zerbitzua:

Goiko Plaza z/g 20140 Andoain
943 300 831
euskarazerbitzua@andoain.eus

Astigarragako Euskara Zerbitzua:

Foru Enparantza 13. 20115 Astigarraga
943 335 064
au.kultura@astigarraga.net

Hernaniko Euskara Zerbitzua:

Gudarien plaza 1, 20120 Hernani
943 337 029
euskara@hernani.eus

Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzua:

Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria
943 376 184
euskara@lasarte-oria.eus

Urnietako Euskara Zerbitzua:

San Juan z/g, 20130 Urnieta
943 008 033
euskara@urnieta.eus

Usurbilgo Euskara Zerbitzua:

Irazu kalea, 20170 Usurbil
943 371 999
euskara@usurbil.eus

ZILEGI ESKOLAK

“Euskalduntze prozesua eta alfabetatzea modu naturalean lantzeko saioak” ere badira Buruntzaldean; Hernanialdeko, hau da, Astigarraga eta Hernaniko AEK euskaltegiek eskaintzen dituzten zilegi eskolak. “Herriko euskaldunak eta euskara ikasten ari direnak elkarrekin arituko diren saioak dira: historia, sexualitatea, eskulanak, sukaldaritza, osasuna, jolasak, landareak, masajea, filosofia, sendabelarrak... Bertan parte hartzeko interesa besterik

ez da behar. Ez dira hitzaldiak, saio dinamikoak baizik, eta partaideek eztabaidatu, hausnartu, landu, sortu...eta elkarreginez euskara landu eta gaiei buruz asko ikasteko aukera izango dute”. Saio motibagarriak izaten dira ikasleentzat.

Informazio gehiago:

607 59 28 64 (Hernani)
607 61 06 87 (Astigarraga)
zilegieskola.blogspot.com.es
zilegieskola@aek.org

Aginagako jaiak, iruditan

Eskola Txikiak herriaren hauspo. Haur, gazte eta heldu auzolanean. Etor-kizunik badago leloa darama. Aldarriaren azpian, Aginagako haur, gazte nahiz gurasoak ageri dira marraztuak. Haiei ateratako argazki batean oinarritua dago Ariztitxo pilotaleku aurreko plazako horman jada ikusgai dagoen margolana.

Aginagako Eskola Txikiko haur nahiz gurasoek auzolanean margotu zuten mural eder askoa jaietan, urriaren 9ko Umeen Egunean. Eskola Txikiari babesa adierazten dion ekimen hau iragarria zegoen aurretik, San Praixkuetako egitarauan. Baina Aginagako Eskola Txikiko kideek bizitako egun zailotan egokitu dira jaiak aurreten, eta esanahi berezia hartu zuen mural margoketak.



Aginagako Eskola Txikiko haurrek nahiz gurasoek auzolanean margotu zuten mural hau urriaren 9an, Umeen Egunean. Jaietako argazki gehiago, noaua.eus orrian topatuko dituzue.



Oilasko biltzaileak, etxez etxe eta baserriz baserri ibili ziren.



Txikiek, ponien gainean ibiltzeko aukera izan zuten.



Jaiak azken egunean, aginagarren arteko lehia egin zen.

BAZKIDEEEN TXOKOA

zozketa
urriaren
14an

URRIAREN 14AN...NOAUAKO
bazkide guztien artean
zozketatuko DUGUN SARIA...

+

2 LAGUNENTZAKO
ZIRKUITU TERMALA ORIOKO AISIAN

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / eukarteaginoaua.eus

Yolanda Arrietaren Argiaren alaba, Euskadi Literatura Saria

Argiaren alaba liburua argitaratzeko komeria asko izan zituen. Argitaletxeen atea itxita aurkitu zituen eta bere kasa plazaratu behar izan zuen. Akaso horregatik, are poztasun handiagoa emango du haur eta gazte literaturako Euskadi Saria jasotzeak. Yolanda Arrietaren liburua aparta iruditzen zitzaion epaimahaikideei, “ezohikoa delako, aparteko mui-na duena: ez da historia liburu bat, baina historia du; ez da fikzio liburu bat, baina fikzioa ere badu, ez da biografia bat, baina biografiatik asko du”.

Bizenta Mogel Elgezabal (1782-1854) idazle bizkaitarrean pentsatuz idatzi zuen *Argiaren alaba* (2014) nobela. “Gaur egungo gazte baten ikuspegitik idatzi nahi nuen”. *Argiaren alaba* liburua argitaratu berrian, Arrieta halaxe mintzo



Joxe Azurmendi, Yolanda Arrieta, Martin Olmos (gaztelerazko Euskadi Saria) eta Joxean Muñoz Kultura sailburuordea, Euskadi Sariak jakinarazi berrian.

zen NOAUA!n: “Zalantza asko izan nituen. Iragana hutsean uzteak ez zidan asebetetzen. Zeren hau ez zen nobela historiko bat (...). Gaur egungo gazte bat hautatu nuen protagonista gisa. Jatorri euskalduna duena baina amerikarra. Eta talentu handikoa, Bizenta Mogel ere adimen handiko emakumea izan baitzen, aurreratua”.

“Bizkorregi zihohan”

Bizentak bere liburua 18 urterekin idatzia zuenez, liburuko protagonistak ere antzeko adina du: “Bere sasoirako aurreratu samarra izango zen Bizenta. Bera bizkorregi zihohan bere sasoirako eta hori islatu nahi nuen”, Yolanda Arrietaren esanak dira hauek.

Asier Azpiroz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdenetan

Inaxio Usarralde aginagarrak aurkeztu zuen Andoingo final zortzirenetako saioan bigarren postuan amaitu zuen arren, eskuraturiko puntuazioari esker, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdenetarako sailkatu da Asier Azpiroz Iztueta zubietarra. Zorionak Asier!

Andoingo saioa saillapena

Jokin Uranga:	457,5.
Asier Azpiroz:	430,5.
Unai Gaztelumendi:	423,5.
Gemma Urteaga:	410.
Ibai Esoain:	405.
Antton Fernandez:	367,5.

Final laurdenetarako sarrerak

Asteburu honetan atsedendia hartuko du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak. Final



Andoingo kanporaketan, Inaxio Usarralde aritu zen gai-jartzaile lanetan. Jokin Uranga nagusitu zen (kantari ageri da). Atzean eserita, Asier Azpiroz.

laurdenak urriaren 24tik azaroaren 8ra jokatu dira. Bost saio guztira.

Hitzorduotarako sarrerak salgai daude jada, bertsosarrerak.eus atarian.

Asier Azpiroz Iztuetak urriaren 24an, 17:30etan Urretxu-Zumarragako Ederrena pilotalekuan jokatu den final

laurdenetan parte hartuko du; zubietarrak lehiakide izango ditu, Agin Laburu Rezola, Beñat Iguaran Amondarain, Elixabet Pagola Apezetxea, Jexux Mari Irazu Muñoa eta Nerea Elustondo Plazaola.

Informazio gehiago: bertsozale.eus

Badator Errigoraren kanpaina

Aurtengo edizioa aurkezteko bilera bana egin zuten duela bi aste Durangon, Iruñean eta baita Usurbilen ere. 45 lagun bildu ziren Potxoenean.

“Jendea lanerako gogoz eta ilusioz ikusi dugu, kanpainari ekiteko irrikaz. 160 lagun inguru (45na Durango eta Usurbilen eta 70 Iruñean) bildu gara guztira, 60 bat herri eta hiritatik etorritako hamaika lagun: herrietan eta sarean Errigoraren kanpainak zabaltzen dihardutenak, Zazpiak bat, Sortzen, AEK eta Ikastolen elkarteko lagunak, euskararen arloko eragileak, sindikatuak, nekazariak, ekoizleak, Nafarroa hegoaldeko euskaltzaleak... Jende desberdina euskararen eta bertako ekoizpenaren alde bat eginda”, Errigoratik aditza eman dutenez.

Saskiak urriaren 21etik azaroaren 8ra eskatu ahaliko dira, NOAUA! Kultur Elkartearen bidez. Zehaztasun gehiago, datorren astekarian.

Tipi-Tapako zozketa

Ondodun pintxo festa amaieran eginiko zozketak bi saritu utzi dizkigu:

1-Lehenengo saria (150 euroko erosketa balea): 3.526.

2-Bigarren saria (bi lagunentzako afaria): 5.107.

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, zurea baldin bada zenbaki saritua, gerturatu Txirristra tabernara. Hurrengo Tipi-Tapa, gogoan izan, azaroko bigarren igandean; azaroaren 8an.

“Guraso izaten ikasten” formazio saioak

Urriaren 15etik aurrera, hilerro, ekainaren 9ra arte. Ordutegia: ostegunak, 17:00 -18:30.

■ Non: Udarregi ikastolan.

■ Nori zuzendua: 0-12 urte bitarteko seme alabak dituzten gurasoentzat.

■ Prezioa: 30 euro.

■ Izen ematea: urriak 9 arte, hitzaho@udarregi.eus

Ordainketak egin eta identifikaziorako txartel propioa izango du Usurbilek

Usurbil Herriar Txartela abian jartzea adostu dute Usurbilgo Udalak eta Hurbilago Elkarteak Nafarroako Rural Kutxarekin lankidetzan, urriaren 8an Potxoenean sinatu zuten hitzarmenari esker. Dena aurreikusi bezala badoa, udalerrri honek ordainketak egiteko doako txartel propioa izango du 2016ko otsaila alderako.

18 urtetik gorako usurbildarren-tzak txartel berri hau, VISA-ren parekoa izango da. "Honenbestez, Hurbilago elkarteak diren denda eta establezimenduetan ez ezik, herriko beste saltokietan eta mundu osoan erabili ahal izango da ordainketak egiteko; hori bai, Hurbilagoak diren dendek, abantaila eta deskontu bereziak eskainiko dituzte. Txartel berria gainera, ohiko VISA txartela ez bezala, doakoa izango da herri-



Aurreko astean sinatu zen hitzarmena. Txartela 2016ko urte hasieran egongo da indarrean.

tarrarentzat eta teknologia aldetik punta puntako teknologia eramango du (txipa, kontakturik gabeko teknologia, banda, barrakodea...)", adierazi dute egitasmo honen sustatzaileek.

Txartel berria ordea ordainketak egiteko bakarrik ez, identifikaziorako

ere baliatu ahal da. "Herriarrek Usurbilgo udal zerbitzuak ere erabili ahal izango dituzte; txartel bakararrekin, Oiardo udal kiroldegiko, Sutei liburutegiko, Potxoenea kultur etxeko edo hondakin bilketarako larrialdi puntuetako erabiltzaile gisa

identifikatzeko aukera izango du herriarrek", Hurbilago Elkartearen eta Udalaren esanetan.

Gainera, txartel berriarekin "herri guneari bizia ematen dioten komertzio txikien eredia sustatu nahi da".

Eskaerak

Egitasmoa aurkezteko agerraldian parte hartu zuten Xabier Arregi alkateak, Juanjo Allur Siadeco-ko kideak, Igor Gorriti Hurbilago Elkartearen lehendakariak eta Gorka Iturri Nafarroako Rural Kutxako ordezkariak. Proiektua hain zuzen, Udala, Hurbilago eta aipatu kutxaren arteko lankidetzarekin gauzatuko da. Rural Kutxako bezeroa izan edo ez, berdin berdin eskuratu ahal da txartel berria "eta egindako gastua edozein finantza erakundetan kargatu ahal izango da".

Izena eta irudia hautatzeko lehiaketa jarri da martxan

Txartela zuetako edonork diseinatzeko aukera du. Adi; Usurbil herriar txartelaren izena eta irudia hautatzeko lehiaketa irekia antolatu da. Oinarrien berri hurbilago.com atarian jaso dezakezue. Oinarrien aurrerapena doakizue hemen:

■ Helburua: lehiaketa publiko eta ireki bidez, txartel berriaren izena eta irudia hautatzea.

■ Nori zuzendua: banaka edo taldean, edozeinek parte hartu ahal izango du. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun. Nahi adina lan aurkeztu daiteke. Lana originala, inoiz eta inon argitaratu gabea izango da.

■ Diseinu lana: formatuak ohiko kreditu txartel baten neurritara egokitua behar du izan, neurri horiek, 8,6x5,4 cm izanik.

Txartelaren bi aldeetarako diseinua landu behar da; aurrealdean txartelarentzat proposatutako izena eta irudiarekin batera, VISAREN ikurra ipintzeko tokia aurreikusi beharko da; txartelaren atzealdean berriz, barrakodearentzako tokia utzi beharko



Rural Kutxa, Udala, Hurbilago eta Siadeco dira txartelaren sustatzaileak.

da eta hiru logotipo ere ipini beharko dira (Usurbilgo Udalarena, Hurbilagoarena eta Rural Kutxarena).

Aurkeztutako lanean pertsonaren baten irudia agertuz gero, pertsona horrek lan horretan azaltzeko eta lanaren edizioa egin ahal izateko emandako baimena sinatuta aurkeztu beharko da.

Lanak egiteko erabilitako teknika librea izango da eta lanak euskarri ezberdinetan aurkeztu beharko dira: a) Paper euskarrian, txartelak izango duen neurrian aurkeztua.

b) Euskarri digitalean.

■ Lanak aurkezteko azken eguna: aza-

roak 6, Usurbilgo Udalean. Proposamen bakoitzeko, bi gutun-azal aurkeztuko dira, -A eta B-, eta hauen kanpoaldean, ondoko datuok jasoko dira:

- Egilearen izen goitia.

- A edo B kartazala den (kasuaren arabera).

- Izenez: "Usurbilgo herriar txartelaren diseinurako lehiaketa"

Gutun-azalen barruan sartu beharrekoa:

A gutun-azalean: diseinu egilearen datuak, hau da, izen-abizenak edo elkartearen izena, IFZ/IFK, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa eta hura identifikatzeko behar den beste

edozein datu.

B gutun-azalean: proposatzen den diseinua joango da, euskarri digitalean eta paperean.

■ Kontuan hartuko diren irizpideak: "usurbildarrak identifikatuak sentitzen garen irudia izatea baloratuko da, diseinatutako markaren balio artistiko eta sinbolikoa, komunikatzerakoan duen indarra, berritzailea izatea, erakargarria... eta aldi berean patrikan eraman behar dugun txartel baten ezaugarrietara egokituko dena".

■ Hautaketa: aurkeztutako lanetatik hiru egokienak hautatuko ditu epaimahaiak. Hiru lanak jendaurrean jarriko dira erakusgai eta herri-galdeketa bidez erabakiko da hiru lanon artean, lan irabazlea.

■ Epaimahaia: Usurbilgo Udalaren ordezkari 1. Hurbilago elkartearen ordezkari. Diseinuaren edo komunikazioaren arloko 2 profesional.

■ Saria: 500 euro irabazlearentzat.

■ Deitzaileak: Usurbilgo Udala eta Hurbilago Elkarteak.

■ Informazio gehiago: hurbilago.com, usurbil.eus edo udaletxean.

Arraun festa handia Aginagan

Giro bikaina beste behin, as-
teburuan Aginagako jaietan
ospaturiko trainerila txapel-
ketetan. Egun eguzkitsua suerta-
tu zen gainera eta errioa eta errio
bazterrek itxura polit askoa zuten,
txoko ezin ederragoan egin ohi dira
estropadak.

Zarautz nagusi gizonezkoetan

Erritmo bizia markatu zuen ha-
sieratik, San Praixkuetako Gizo-
nezkoen 9. Trainerila Txapelketa
irabazi zuen Zarautzek. Oraingoan
beraz, Urola Kostara doa Agina-
gako bandera preziatua. Etxekoen
animu eta babes osoa izan zuten
arren, aginagarrek aurtengo edizioa
ere ez dute irabazterik izan. Halere
zoriontzekoak ditugu arraun talde
guztiak, denek ere ikuskizun aparta
eskaini zutelako. Bitxikeria moduan;
Orian lehiatu diren lau arraun ontzi-
tik hiru Orio elkartearenak ziren. Bat
etxekoek baliatu zuten, beste bat
Aginagak eta azkena aiarrek. Hauek
Orioko izena estali eta Aia izena
idatzi zuten ontzian.

Sailkapena

1-Zarautz: 8:25.68.



Mutiletan Zarautz eta nesketan Orio izan ziren garaile.

2-Aia: 8:46.34.

3-Orio: 8:46.39.

4-Agiña: 8:49.72.

Orio txapeldun emakumezkoetan

Lau ez, azkenean hiru arraun tal-
deek parte hartu zuten Aginagako
jaietako 3. Emakumezkoen Train-
erila Txapelketan. Denek erakustaldi
bikaina eskaini ziguten arren, azke-
nean Orio nagusitu zen. Aginagak
ordezkaritzarik izan ez zuen arren,
herriar bat bagenuen lehiakideen
arte; Nagore Arruti Urkiola, Get-
ariako taldean. Getaria izan zen hain
zuzen, Aginagako emakumezkoen

lehen trainerila txapelketa irabazi
zuen. Iaz San Juan nagusitu zen.
Orio aurtengoan:

Sailkapena

1-Orio: 9:34.25

2-Getaria: 9:55.91

3-Hibaika: 10:12.03

Iñaki Errasti, Orio B-ko entrenatzaile berria

Azaroan hasiko den arraun denbo-
raldi berrian hasiko da entrenatzaile
lanetan aginagarra, aipatu moduan,
Orio B taldean.

Paleta ikastaroa emakumeentzat

Urriaren 19tik maiatzera arte
antolatuta dute ikastaroa. 16 ur-
tetik gorako emakumeek parte
har dezakete. Izen ematea zaba-
lik urriaren 15era arte. "Animatu
neskak!" antolatzaileen gonbita.
Aurten, ordubeteko entrena-
mendu saioak izango dira Usur-
bilgo frontoian:

-Astelehenetan: 20:00-21:00.

-Asteazkenetan: 09:30-10:30
eta 20:00-21:00.

Izen emateko: 943 372 498 edo
kirola@usurbil.eus

Huarte-Arakil-Goldaraz mendi irteera

Izena emandako mendizaleek,
igande goizean 07:00etarako
gerturatu beharko dute Oiar-
do Kiroldegi atarira. Autobusez
egingo baita joan etorria. 20 ki-
lometroko txangoa egingo dute.
Otordua amaieran; janaria nor-
berak eraman behar du, edaria
antolatzaileen esku. Informazio
gehiago: andatzamendizale.info

Hauteskundeak Usurbil KE taldean

Asteazken honetan egitekoa zu-
ten, Usurbil K.E.-ko zuzendaritza
berritzeko hauteskunde batzor-
dea osatzeko hautagaien bile-
ra. "Hautagairik ezean, Usurbil
K.E.-ko idazkariak Hauteskunde
Batzordeko funtzioak egingo
ditu", aurreikusia dutenez. Biler-
a berean behin behineko hautes-
kunde batzordea osatzekoa zen.
Batzordeari helegiteak aurkezte-
ko epea zabalik egongo da orain,
urriaren 28ra arte.

Zubietako txapeldun orde final ikusgarrian

Donibane Lohitzuneko irabazi zuen,
igande goizean Zubietako plazan
ospatu zen Endika Abril Errebote
txapelketako final handia. Azken
emaitza; Luzaz Gazte 13-5 Zubietako.
Etxekoak txapeldun orde ditugu.
Partida bikaina jokatu zuten denek.
Eta ederki ospatu zuten gero. Zor-
rionak!



Luzaz Gazte-koen aurka galdu zuten finala: 13-5.

Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
Patrieta
Jateak
· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera
☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

ETXEBIZITZA**Salgai**

Txaramunto kalean etxebizitza salgai. Hegomendebaldera begira. 98 m² + balkoia, egongela/jangela eta sukaldea. 3 gela. 2 komun. Garajea eta trastelekua aukeran. Iker (686912979)

Atikoa Zubietan, 110m² erabilgarri. 2008-an guztiz berritua, teilatuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m²-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julen

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukaldea, komuna eta nahi izan ezker garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, eskilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk: 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokatzeko pisu bila nabil. Telefono zenbakia: 615730680

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Behoko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila

dabil partekatze 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpokaldera. 630 713 583.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Baju komertzial bat salgai erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra utzeko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Txapeldun taberna alokairuan edo salgai: 676 976 005.

Usurbildar bat behar dugu asisteletik ostiralera, haur bat ikastolara eta bestea Haur Es-

kolara eraman, eta etxeko lanak egiteko. 629 931 375 (Joxean), 679 709 331 (Kris).

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuean. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jate txeren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan ari-tzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketetan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan

egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

**Zorionak Inhar!**

Urriak 6an bi urte bete zituen etxeko txapeldun txikiak. Bi muxu potolo!

OHARRA: Urriaren 23an aterako dugu hurrengo NOAUA! astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: urriak 19 astelehena. E-postaz: erredakzioa@noaua.eus

Heriotzak**Carmen Yeregui Arregui**

85 urterekin hil zen urriaren 5ean, Zubietan

**Martin Roteta Altuna**

54 urterekin hil zen urriaren 9an, Orion

**Irene Lamuedra Muñoz**

67 urterekin hil zen urriaren 10ean, Aginagan



Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua-ekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezala ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezala ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezala ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukaldeko laguntzaile bezala, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioa ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titulua-ekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo

externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo

garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua-ekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan

egingo nuke. 635 715 424 Julia.

BESTELAKOAK

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUAIn edo Udaltzaingoan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Irailaren 9an, arratsaldean, Zubietako Lertxundi gainan aurkitu ditut betaurreko batzuk. Berreskuratzeko deitu Euxebiori: 943362665.

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Giltza batzuk galdu ditut DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdu dut. 608 566 683.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubietako edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Orduetako ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Agenda Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 15	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 16	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 17	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 18	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 19	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
Asteartea 20	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 21	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Urriak 15 - urriak 25

Osteguna 22	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 23	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Larunbata 24	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 25	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda urria

18 igandea

■ **Mendi irteera: Uharte Arakil-Goldaraz.**
Ikus 15. orrialdea.

21 asteazkena

■ **"Euskararen isobarak", Pako Aristiren hitzaldia Sutegin.** 19:00etan.
Antolatzailea: Nafartarrak.

22 osteguna

■ **"Umorea eta politika", Asisko Urmeneta, Olaia Aldaz eta Uxoa Anduagaren hitzaldia Sutegin.** 19:00etan.
Antolatzailea: Nafartarrak.

Hitzaldi zikloa, Nafartarren eskutik

Bi hitzaldi programatu dituzte datorren asterako: Pako Aristik "Euskararen isobarak" liburuaren ganean hitz egingo du urriaren 21ean eta, biharamunean, "Umorea eta politika" izeneko hitzaldiaz goatzeko aukera izango da, Asisko Urmeneta, Olaia Aldaz eta Uxoa Anduagarekin batera.

Urriak 21 asteazkena

■ 19:00 Hitzaldia Sutegin: "Euskararen isobarak".
■ Hizlaria: Pako Aristi.
■ Zehaztasunak: "Liburu hau zaplazteko bat da diskurtso desideologizatuen aurpegian; kolpe bat gogoeta alienatuen mahai ganean. Asindua, eta ondoren, katarsia. Hori guztia estilo bizian idatzia, istorio, pasadizo, aipu eta gogoeta zorrotzak erabiliz.

Koldo Izagirrek gure hizkuntzan artseniko aztarnak aurkitu zituen bezala, Pako Aristi euskararen inguruko diskurtsoa kutsatzen duten gezurrak detektatzen saiatu da liburu honetan: euskara politizatua dagoela, ez dela moderno, subentzionatua dagoela, erakargarritasuna falta zaiola... Horretarako mila urteko historia marrazten du, Nafarroako Erresumaren garaitik hasi eta gaurdaino euskarak jasan duen ende-
kapen planifikatua deskribatuz.

Botere hegemonikoak, berez bereizia zen lurralde bat menderatu duenean, gezurrak asmatzen baititu bere aurpegia ederresteko, eta menderatua konplexuz betetzeko. Gero gezurrok inposatzen ditu, eta guk irentsi egiten ditugu, azkenik, gezurren ganean eraikitako ekimenak antolatzen.



Pako Aristi, "Euskararen isobarak" (Erein) liburuaren aurkeztu zuen egunean.

Urriak 22 osteguna

■ 19:00 Hitzaldia Sutegin: "Umorea eta politika".
■ Hizlariak: Asisko Urmeneta, Olaia Aldaz eta Uxoa Anduaga.
■ Zehaztasunak: "Umorea ospe oneko kategoria da. Zoriona, osasuna, munduko bakea edo maitasuna bezain estimatua dela esango genuke. Hala ere, umoreak ertz asko ditu. Barru-barruraino iristen zaigu, eta zorrotasuna, asmo txarra, minberatasuna edo sentimenduak ditu bidelagun. Ez beti onerako, gainera. Izan ere, umorea sarriegi erabili izan da iseka egiteko, barregarri uzteko, mespretxatzeko, zauritzeko...
Eta zer gertatzen da kolektibitate, gizarte-talde, herri edota boterearen beraren espazioan kokatzen garenean? Nabarralde Haria aldizkariaren ale bat plazaratu zuen kontu horiei buruz. Orain, gogoeta horretan parte hartu zutenetako batzuk, Asisko Urmeneta, Olatz Aldaz eta Uxoa Anduaga alegia, mahai-inguru batean izango ditugu, gai korapilatsu horretan sakontzeko."

Datozenak

"Bateginik" erakusketa, urriaren 23tik aurrera

"Jose Luis Elexpe "Pelex"ek, bere lan artistikoaren ibilbidean, Bateginik erakusketa antolatu du Usurbilgo Udalarekin elkarlanean. Down Sindromea eta inklusibitatea ardatz hartuta prestatutako erakusketa da. Bertan, Sofia Arostegi eta Jose Luis Elexpe "Pelex"en lanak egongo dira ikusgai. Erakusketaren irekiera ekitaldian, Verdini dantza taldeak parte hartuko du".

■ Irekiera: urriaren 23an, 19:30etan.
■ Tokia: Sutegiko erakustaretoa.
■ Osteguna eta ostirala: 18:00-20:00.
■ Larunbatean: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.
■ Igandetan: 12:00-14:00.
■ Antolatzaileak: Joxe Luis Elexpe "Pelex" eta Usurbilgo Udal.

Urriaren 24an, Liburutegien Eguna

"Urriaren 24an Liburutegien Eguna. Liburutegira gerturatzen direnentzat sorpresatxoren bat izango da. Zer ote?", Sutegikoen gonbitea duzue horixe.



Azaroaren 5ean 10 urte beteko ditu Sutegik.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ELORZA
O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

EUSKAL JAIA '15 LASARTE-ORIA



URRIAK 17, LARUNBATA

10.00-11.00	Diana
11.00-12.30	Mugimenduko kideen esperientzien Trukegunea (Mirenbuenean)
11.00-13.00	Kantu Jira Txikia (Zumaburutik Okendon)
13.00	Ongi etorri! Ekitaldia (Okendon)
	• Kantua
	• Dantza
	• Okerra Harria
	• Topa kolektiboa
14.30	Herri bazkaria (Okendon)
15.30-14.30	Haur eta gaztetxoentzako jolasak (Okendon)
16.30	Topa Egunaren ekitaldi nagusia.
17.00	Irrien Lagunen "Ane eta Piratekin" ikuskizuna (Okendon)
18.30-19.00	Oaintxe in deul (Txaranga Okendon)
19.00-21.00	Erromeria, "Eztengiro" taldearekin (Okendon)
20.00..	Triki poteoa eta pintxo-potea herri-ritik zehar

*Egunaldi txarra eginez gero ekintza nagusiak Loidi Barren-eko frontoan izango dira

g!tunk

KILOMETROAK 2015 USURBIL



Azaroaren 7an,
ESKERTZA JAIALDIA

www.kilometroak.eus





Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

• ERAIKUNTZAK • OBRAK
• BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**ESKAIOLA
PLADUR**

Joxean Elorza -USURBIL
699426042



**Antonio
URRUZOLA**
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industriaidea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Imanol
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA



**antenas
Telemar**

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B - 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki
Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**JOSEBA
ARANGUREN**
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak
• beira bikoitza • segurtasun beirak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



URPI Leihook
urpileihook@gmail.com

943 50 80 95 • 688 81 93 33
Nagusia, 10 Terasa • 20170 Usurbil (GIPUZKOA)